

CAJA LABORAL GESTIÓN, SGIIC,
S.A.-REN ORDAINKETA-
POLITIKAREN APLIKAZIOARI
BURUZKO EBALUAZIOA

2024KO EKITALDIA

Arriskuen Kudeaketaren eta Araudia Betearazteko Arloa.

Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA

2025eko Martxoa

1. Sarrera

Caja Laboral Gestión, SGIIC, SAREN ordainketa-politikak bere artikuluetan ezartzen duenez, araudia betearazteko arloak, gutxienez urtean behin, ordainsari-politikaren aplikazioaren barne-ebaluazioa egingo du, Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren esku uzteko onartutako ordainketa-politikak eta -prozedurak betetzen diren egiaztatzeko. Ebaluazio horretan, egun horretan osatzen duten pertsonen deskribapena jasoko da, bai identifikatutako kolektiboarena, bai Laboral Kutxak Kudeatzaileari zerbitzu-eginkizunetan lagatako langileena.

2. Kudeatzailearen eta Administrazio Kontseiluaren langileen osaera.

2024aren itxieran, langileen banaketa kudeatzailearen arloen arabera honako hau da:

Zuzendari Nagusia Aitor García Santamaría da.

Arriskuen kudeaketa eta araudia betearazteko arloa Fernando Gil Crespok (arduraduna), Iker Marquinez Narrok eta Eneritz Lezea Bengoetxeak osatzen dute.

Kudeaketa-arloa, Front Office, José Manuel Ruiz Rodriguezek (arduraduna), Nerea Clemente San Agustinek, Jorge Martínez Justok, Aritz Urrestarazu Basagoitiak eta Oihane Urcelay Arenazak osatzen dute.

Administrazio arloa, Back Office, Sonia del Olmo Iturriartek (arduraduna), Matxalen Elortz Artechek, Ander López de Munain Aguirrek eta Maider Olabarria Cenicacelayak osatzen dute.

Sail komertziala Garbiñe Aramendi Azurmendik osatzen du.

Administrazio Kontseilua honako hauek osatzen dute:

- Jose Carlos Maza Guzmán, 2016/09/29an izendatutako presidentea.
- Beñat Herce Leceta, 2017/09/25ean izendatutako kontseilari independentea.
- Sara Galino Calderón, 2021/09/27an izendatutako kontseilaria.
- Aitor García Santamaría, 2016/09/29an izendatutako idazkari kontseilaria.

Administrazio Kontseiluko kideek ez dute profesionalki kudeatzailean lan egiten, salbu eta Aitor García Santamaría, bertako Zuzendari Nagusia.

Zuzendari Nagusia kudeatzaileak kontratatzen du, adierazitako gainerako langileak Caja Laboral Popular, S. Coop. de Crédito enpresako lan-bazkideak dira, eta sozietate kudeatzaileari lagata daude, lanaldi osoko zerbitzu-eginkizunen erregimenean.

Caja laboral Gestión en ordainsari-politikan, "kolektibo identifikatu" gisa definitzen da langile-kategoriak, goi-zuzendariak, arriskuak hartzeko arduradunak eta kontrol-funtzioak betetzen dituztenak barne; beraz, kolektibo horren barruan sartuko lirateke Administrazio Kontseiluko kideak, Aitor García Santamaría Zuzendari Nagusia eta Fernando Gil Crespo arriskuak kudeatzeko eta araudia betearazteko arloko arduraduna.

3. PROPORTZIONALTASUN-IRIZPIDEEN APLIKAZIOA

Caja Laboral Gestión en ordainsari-politikak, entitatearen tamainako faktoreak, barne-antolamenduaren sinpletasuna, garatutako jardueren izaera, irismena eta konplexutasuna kontuan hartuta, proportzionaltasun-irizpidearen aplikazioa jasotzen du, IKELen 46. artikulua 2. idatz-zatian jasotako printzipio hauek ez aplikatzeari dagokionez:

- a) Ordainsari aldakorra tresnetan eta atxikipena, lehen deskribatutako araudiaren m) idatz-zatian jasotzen dena.
- b) Lehen deskribatutako araudiaren n) idatz-zatian aipatzen den geroratzea.
- c) Kudeatutako IKELen ziklorako egokia den urte anitzeko esparruan, lehen deskribatutako araudiaren h) idatz-zatian aipatutako emaitzen ebaluazioa egitea.
- d) Kontratu bat aldeztu aurretik deuseztatzearen ondoriozko ordainketak denboran zehar lortutako emaitzetan oinarritzea eta emaitza txarrak ez saritzeko moduan ezartzea, arestian deskribatutako araudiaren k) idatz-zatian jasotzen denaren arabera.
- e) Doikuntza-mekanismo oso bat sartzea, emaitzen neurketan arrisku arrunt eta etorkizuneko arrisku mota guztiak integratzeko, lehen deskribatutako araudiaren l) idatz-zatian jasotako ordainsariaren osagai aldakorrak kalkulatzeko.

Era berean, proportzionaltasun-irizpidean oinarrituta, ez da eratzen IKELen 46 bis artikulua 4. idatz-zatian aurreikusitako Ordainsarien Batzordea, eta haren eginkizunak Sozietatearen Administrazio Kontseiluari helarazten zaizkio.

4. Arriskuen kudeaketaren eta araudia betearazteko arloaren barne-ebaluazioa.

Arriskuen kudeaketaren eta araudia betearazteko arloak, oro har, eta planteatutako gomendioa kontuan hartuta, egokitzen jotzen du 2024ko ekitaldian Erakunde Kudeatzailearen ordainsari-politikan jasotako politikak eta prozedurak aplikatzea, bai ordainsariari oro har aplikatu beharreko printzipioei dagokienez, bai identifikatutako kolektiboari soilik aplikatu behar zaizkionei dagokienez.

Entitateak 2024ko ekitaldiari dagokionez duen ordainsari-egiturak ordainsari-politikan onartutako printzipioak eta aplikatu beharreko legeria bete ditu, kontuan hartuta ez direla kontuan hartu arauz jasotako printzipio jakin batzuk, aurreko atalean jasotakoaren arabera, eta, gainera, ez direla entitatearen barne-araudiarekin aurrez aurre jarri.

Ez da jakin langileek haborokinik jaso dutenik, negoziazio-zentroetatik jaso litezkeenak barne, kudeatutako zorroen kontura agindua emateagatik, neurrigabeak badira eta beren eginkizunak betetzearen baldintzatzaile gisa interpreta badaitezke.

Ordainsari-politikaren aplikazioan jasagarritasun-arriskuak txertatu dira.

Ordainsari aldakorrak, batez ere identifikatutako kolektiboaren kasuan, baina baita gainerako enplegatuen kasuan ere, ez dakar guztizko ordainsarien gainean desgokitzen jo daitekeen portzentajerik, eta, beraz, onartutako printzipio orokorraren arabera, ordainsari finko nahikoa handia eskatzen du guztizko ordainsariaren gainean, osagai finkoak eta aldakorrak behar bezala orekatuta egon daitezzen. Zehazki, eta langile guztien kasuan, ordainsari finkoaren ehunekoa guztizkoaren gainean %89,63koa izan zen.

Gainera, ordainsari aldakorrari dagokionez, honako puntu hauek bete direla jakinarazi da:

- Arriskuen kudeaketaren ikuspegitik, sozietatearen finantza-egoeraren eta arrisku-profilaren arabera jasagarria den testuinguru batean gauzatu da. Zentzu horretan, ordainsari aldakorraren guztizkoak entitatearen aldi bereko mozkinaren % 0,83 izan da 2024ko ekitaldian, eta ondare garbiaren % 0,43 ekitaldiaren itxieran.
- Zenbateko hori taldeko helburu kolektiboetan oinarrituta kalkulatu da, finantzaz kanpoko arriskuak kontuan hartuta, bai eta banakako eta arlo bakoitzeko arriskuak ere, eta azken atal honetan ez dira kontuan hartu beste arloetako emaitzak. Zehazki, arriskuen funtzioaz arduratzen diren langileentzat, entitatearen beste arloetako emaitzek ez dute haien helburuetan eraginik izan.
- Ez da ordaindu arauz jasotako eskakizunak saihesteko moduko tresna edo metodoen bidez.
- Inoiz ez da izan gizabanako bakoitzaren osagai finkoaren % 100 baino handiagoa. Zuzendari nagusiaren kasuan, ordainsari aldakorra guztizko

ordainsari gordinaren % 25,95 izan da (ordainsari finkoaren % 35,04), eta arriskuen kudeaketaren kudeatzeko eta araudia betearazteko arloko arduradunaren kasuan, ehuneko hori % 14,25era igo zen (ordainsari finkoaren % 16,62).

Azkenik, kudeatzailearen ordainsari-politikan kontuan hartzeko gomendio gisa, honako hau aipatzen da:

- Aipatutako politikan, ordainsari aldakorrerako entitatearen arlo guztiak kuantitatiboki eta kualitatiboki ebaluatzeko metodologia bat sartzea, bai eta hura banatzeko prozedura bat ere.